

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, adibidez, ONCE da ezagunena, baina baita AGAF ere. Kaltetuentzako eta Senideentzako Glaukoma Elkartea, gure bazkide izango dira. Gure laguntzaile handienak izango dira. Jokoak sortzen lagunduko dizkigute, ideiak eta hobekuntzak emango dizkigute, eta jokoan/produktuen oniritzia emango digute, ikusmen urritasuna edo ikuspen txikia duten pertsonak baitira. Haiek dira onenak enpresan parte hartzeko eta gure proiektuarekin laguntzeko.

Produktuen hornitzaileei edo fabrikazioari dagokionez, zero kilometroko enpresa batek ekoiztuko dizkigu produktuak; hau da, bertako ekoizpenean, garraio-distantzia txikietan eta ingurumen-inpaktuaren murrizketan oinarritzen den eredua jarraitzen duen enpresak. Ondoren, guk egokituko ditugu gure beharretara.



Produktua fabrian ekoitzi ostean, gure langileek izango dira erabakiko dutenak nola egokitu behar den produktua eta gero, erositako braile makinaren bidez, azken ukitua emago diogu.

Enpresak urte batzuk barru, epe laburrean, ondo funtzionatzen badu, beste desgaitasun batzuk dituzten beste pertsona batzuentzako produktuak fabrikatzera bideratuta dauden hainbat enpresarekin fusionatzea gustatuko litzaiguke, eta, horrela, enpresa handi bat osatzea, bezeroek beren beharrak bete ditzaten, desgaitasunaren arabera.

